

Delineatzaile erretiratua

Igor Mercado Azcuenaga



Delineatzaile erretiratua

Igor Mercado Azcuenaga

Julene Azpeitia 36. ipuin lehiaketa

2023

Bigarren saria

2023ko azaroan digitalizatutako ipuina.

© Igor Mercado Azcuenaga (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Hirurogeita hamar urte bete zituen egunean, delineatzaile erretiratuak gorbata jantzi ala ez zalantza egin zuen. Ordurako gosalduta zegoen, bezperako ogia kafesnean bustirik, ohiko legez, eta emazteak, alkandora lisatzeaz gain, zenbait gorbata utzi zizkion desegindako ohearen gainean. Banan-banan hartu eta ispilu aurrean jantzi zituen; hala ere, ez zegoen ezein irudirekin konforme. Gainera, sargori zetorren eguna eta gorbata urka-bilur bihurtzen zitzaion halakoetan. Lepo bueltako korapiloa laxatzea, bere lankide izandako askok urtetan egin bezala, ez zen aukera. Zabarkeria irizten zion hautu hari; bai norberaren bai bezeroen kontrako keinu deliberatua. Horretarako hobe gorbatarik ez janztea, mantendu zuen beti.

Ispilu parean urrats bi egin zituen aurrera delineatzaile erretiratuak, metro eta hirurogeita hamazazpi zentimetro eta neurriko pisua. Aurpegiko zimur bakoitza zein segundo zehatzetan ernatu zen jakin nahi izan zuen orduan. Bekokia txandaka uzurtuz eta lasaituz ibili zen, ea gisara erantzunik bazen, emaztearen ahotsa heldu zitzaion arte. Presatuta, alkandora zuria garbi zegoela ziurtatu, amerikanaren bularra eskuekin lisatu eta kalera egin zuen. Ispiluak lipar batez baino ez zuen lortu jada ihesean zen gizon ilezuriaren itzal luzangari eustea.

Termometroak goizean goizetik zigortu arren, zeruak euria aurreikusten zuen. Delineatzaile erretiratua, Ordena, Legea eta Jainkoa iparrorratz, aterkirik gabe kaleratu zen, hura galtzeko beldurra erraietan, halakorik jendaurrean sekula onartuko ez zukeen arren. Galdutako euritako pareak emaztearen susmoak piztu zituen arestian. Erdi bustirik etxeratzea bazen zigor nahikoa, zer eta burua galtzen hasia ote zen ikertzeko galdetegi baten biktima izateko. Ez, ez zuen horretarako batere gogorik.

Metro geltokira bidean, beharginek lokalak eraberritzen ziharduten. Lokal bat itxi, "salgai" iragartzeko afixa fosforitua erakusleihoan paratu eta handik gutxira negozio berri batek bere ateak irekitzen zizkion auzoari, izan okindegia, bazar txinatarra edo garbitegia. Zabaldtu eta itxi, zabaldtu eta itxi. Etengabeko

berrikuntza eta aldaketan zurrumbilo hartan, delineatzailearen begi zoliak merkatu librearen esku ikusezina zekusan; orain langileen bizkarra emeki ferekatuz, beharginaren mailu pneumatikoa irmo oratzen gero. Bien bitartean, eta egun hartan bezalaxe, zarata eta hautsa kalean zehar barreiatzen ziren.

Hurkoak porrot egin behar norberak aurrera egingo badu, pentsatu zuen bere kautarako delineatzaile erretiratuak, bi semeren aita eta senar leial bidenabar, metroko eskailerak jaitsi bitartean. Atalaseran heltzean, hormaren kontra bermatuta zegoen zapi nabarreko emakume beltz sendo batek papertxo bat luzatu zion. "Zure eskuan etorkizuna irakur daiteke: osasuna, maitasuna, lana, seme-alabak..." zioen zabaldu orduko. Iruzurak dakarren amorrua eta behar gorriak pizten zion erruki kristaua nahastu ziren delineatzaile erretiratuaren barrenean. Emakumeak iragana irakurri ahalko balu sikiera, otu zitzaion azken beltzean.

Nasan kalean baino giro lodiagoa zebilen, heze eta itogarri. Amerikana kendu eta besoan bildu zuen, alkandoraren mahukak ere atzera eramanda. Metroa etorri bitartean, propaganda panelak bidaiari oro erasotzen tematzen ziren. Delineatzaile erretiratuak begi bat itxi eta gandutu ziren panelak, iragarkietako letrak gainjarri, koloreak nahastu. Paneletako hondartza, gorputz gihartsu eta auto azkarrek bere horretan zirauten, ordea, ase gabeko hutsuneak ereiten hiritarren erraietan.

Delineatzaile erretiratua bagoi batera igo zen, hiru geltokitara jaitsi. Nasaz aldatu eta bigarren metro bat hartu zuen gero. Bidaiariak presak jota zebiltzan pasabide estuetan barna, lur azpiko bizitza bestelako taupada batek, bortitza eta arina, mugiaraziko balu bezala. Korrika egiteko gogorik gabe, metroko konexioen mapari beha, hiriaren handitasunaz jabetu zen bat-batean delineatzaile erretiratua, herrixkatik iritsitako ume batek egingo lukeen eran. Zenbat auzo eta bazter zitzaizkion arrotz, etxetik hain hurbil eta hain urrun aldi berean.

Hiria, koloretako hamaika marren amarauna, bururatu zitzaion ezinbestean, zurbiltzen hasitako mapari begira.

Hiriaren barrunbeak atzean utzi eta lurrazalera itzulitakoan oroitu zuen delineatzaile erretiratuak bere hirurogeita hamargarren urteurrena zela, eta hain justu horrexegatik zegoela han, hiriaren beste puntan, sargoria arnas, ezagutzen ez zuen funtzionario baten zain. Hala behar zuen, funtzionarioak ezinbestean

mantendu behar baitira arrotz hurkoarekin, lanaldiak iraun bitarte soinean daramatelako Estatuaren bisaia hotz, aseptiko eta geza.

Hala behar du, eta hala bedi, pentsatu zuen konbentzimendu osoz beste behin ere delineatzaile erretiratuak, itxaron bitartean eskumuturrean zeraman erloju zaharrari beha. Orratzak emeki mugituagatik, astiroago mugi zitezen desiratu zuen. Herdoil dadila denbora, otu zitzaion, erraiekin gehiago buruarekin baino.

Gidabaimena berritzeko azterketa zuen aurretik. Hilabete lehenago beste funtzionario batek berritzea ukatu zion, erreflexuak motel antzean zituela argudiatuta. Bulegari inozo eta umemoko baten iritzia zen, ez besterik, azaldu zion bazkalordu hartan emazteari delineatzaile erretiratuak, oro har apal eta sumintzeko joera eskasekoa. Emazteak lasaitzeko erregutu zion, ez zela hainbesterako, moldatuko zirela, modu pertsonalean ez hartzeko. Gizonari, aldiz, iraingarria zitzaion. Musuzapia estutu zuen ukabilak gorritu arte. Iraungi zitzaion jateko gogoia, hoztu ziren lekak.

Zerua azkar batean grisaxkatu, urrunetik trumoi baten burrunba heldu eta, delineatzaile erretiratuaren orratz higituek hamabiak puntuan markatzen zutenean, sabaian autoeskola baten kartela zeraman utilitario gorri batean agertu zen funtzionarioa. Auto barruko gizontxo lodikote hark irribarrea ezpainenetan zizelkaturik zeraman, marmolari batek marraztua kasik.

"Tira, jar gaitezen martxan", esan zuen funtzionarioak agur moduan.

Nola helduko zen honaino, hain gazte, pentsatu zuen mesfidantzaz delineatzaile erretiratuak, espediente akademiko bikaina eta bi etxebizitza, bata hirian, bestea kostaldean, haren izenean.

"Osteratxoa egingo dugu. Jarraibideak betetzearekin, nahiko", argitu zion aztertzaileak delineatzaile erretiratuari.

Janzkerak ere ez dio mesederik egiten. Bakeroak eta elastiko zabala jantzita inor ez dago aurkeztarri, deliberatu zuen delineatzaile erretiratuak, zeinak armairua zuen emazteak lisaturiko fraka eta alkandorez mukurua. Gaztea izanagatik ere, ez da itxura, tematu zen isilean.

Giltza kontaktuan biratu eta aurrera egin zuen autoak, funtzionarioa kopilotu. Herabe mugitu zen kotxea, motelegi, errepidera irtetea atrebentzia

lotsagarria balitzaio legez. Autobidera sartzeko agindua jaso zuenean, bidea eman zien zenbait kamioiri, pareko seinaleak agindu bezala. Zain jarraitu zuen ondoren, zitzu bizian zihoan auto andana pasatzen utziz. Geldirik, begiak atzerako ispiluan itsatsita, tartea nork utziko isil-misilean erregutzen, delineatzaile erretiratua ainguratuta sentitu zen, azkarregi zihoan mundu batean gupida eske. Gutxira, argi luze batzuk heldu zitzaizkion txandaka ispilura. Seinleari men eginez, lozagia erretzeko zorian egin zuen aurrera autoak.

“Norberaren txanda noiz helduko gidatu behar, bizitzan bezala”, hausnartu zuen ahots goran delineatzaile erretiratuak, segundo batzuen buruan. Bere ahotik ateratzean hitzek dar-dar egin zuten, indarra galduz doan motor baten antzera.

“Hurrengo irteera hartu, mesedez”, moztu zuen funtzionarioak.

Bidean aurrera, delineatzaile erretiratuari ezezagun zitzaion auzo baterako sarbidean, bi banaketa-furgoneta gurutzatu zitzaizkion auto gorriari; gutxigatik ez zuten batekin eta bestearekin talka egin. Klaxon hotsak entzun ziren, birao artean erantzukizuna hurkoari aurrena esleitzeko. Besape eta bizkar, delineatzaile erretiratua blai zegoen. Tente zihoan, bolantetik gertuegi, harekin estu dantzatu nahiko balu bezala.

Izerdiak salatuko nau, ziotson bere buruari delineatzaile erretiratuak gidatu bitartean. Sentsazio likatsua gailentzen zitzaion nola belaunen atzealdean hala esku ahurretan eta, oroz gain, usain desatsegin bat autoan zabalduko ote zen beldurra. Bekokia xukatu zuen poltsikotik ateratako musuzapiarekin. Iragan gabonetako oparia zen, inzialak brodatuta. Dagoeneko guztia duen norbaitek jasotzen duen erregalua; konpromisoa nola arindu ez dakienaren aukera.

“Har ezazu bolantea bi eskuekin, mesedez”, adierazi zion aztertzaileak.

Mantso jarraitu zuen delineatzaile erretiratuak, etorbide batetik buelta eta bestetik itzuli, gasoil-hari batekin hiriaren zati berbera behin eta berriz josten ariko balitz bezala. Bidegurutze batean klaxon hotsak entzun ziren berriz utilitarioaren bizkarrean: semaforoa berde zegoen. “San Blas”, iragarri zuen hasperen batean funtzionario gazteak, lehenengo euri tantak erortzearekin bat. “Ezkerrera”, agindu zuen segituan. Estuak ziren kaleak, eskuaira eta kartaboiz diseinaturikoak. Porlana eta kristalezko leiho mordoa, hamaika aldiz lerrokaturik, elkarren kontra hertsiki loturik. Hori, eta ez beste ezer, zen hiria, gizartea estutzeko habitata.

“Aurrean eskumara”, aditu zen beriz auto barruan. Hasierako tanta lodiek kristala gogorrago kolpatzen zuten, haizetako-garbigailua ura desagertzeko ezgai bihurtzeko tenorean.

Bidaia behar baino gehiago luzatzen hasia zela iruditu zitzaion delineatzaile erretiratuari; bestela esanda, jada hamaika aldiz ibilitako kale beretik gidatzen zebilela. Eraikinak arrapaladan igaroz zihoazen bere begi nekatuen aurretik. Etxabeetan, fruta-dendak, aseguru-etxeak eta tabernak ezker-eskuin agertzen ziren biderkaturik. Mataza-hari bat askatu beharrean sentitu zen delineatzaile erretiratua, korapilo larregi buruan, errepidean, lur azpiko metro-sarean. Langile zeneko garaiak etorri zitzaizkion akordura jarraian: bulegoa, mahaia eta planoak, lerroz beteriko planoak. Urteak eta urteak elkarzut perfektuak marrazten orri zurien gainean; marrak arkatzez, marrak boligrafoz eta marrak bezeroen nahietara, marrak epeen barruan beti, eta orduan, gogoia marraz beterik, begirada kristalean pega-pega, zebra-bide baten parean hain justu, ukabil batek auto gorriaren alboko kristala kolpatu zuen.

Deiadar ito bat entzun zen, euritako bat haizetakoaren kontra jotzen.

Funtzionarioak gogor zapaldu zuen oinetan zuen balazta, “ez al duzu ikusi?!” oihukatu atoan. Izerdia hoztu zitzaion delineatzaile erretiratuari, buruan zituen hari eta marra guztiak berehala hutsaldu.

Autotik jaisterakoan, adin ertaineko gizon sumindu batek errieta egin zien biei, senideak bailiran. Funtzionarioak barkamena eskatu zuen, desenkusarik gabe. Aterkia jaso eta ibiltaria espaloian desagertu zen, haserre baina itxuraz osasuntsu, euri-tantak geziak legez erortzen hasi bezain pronto. Bitartean, kale ertzeko tabernako leihotik bezeroak zituzten epaile, disimulurik gabe begira.

Euripean, auto parean aurrez aurre, funtzionarioak atzamar erakuslearekin seinalatu zituen zebra-bidea eta stop gorria; ondoren, hitzik gabe, kopilotuaren eserlekua. Delineatzaile erretiratua blai eginda zegoen ordurako, barrenean sumendi baten beroa gorderik aitzitik.

“Lehenengo euri-tantak errepideko hautsarekin nahasten dira”, azaldu zion funtzionarioak, bolante likatsuaren jaun eta jabe berriak, hiritik barrena gidatu ahala. “Orduan da arriskutsuen errepidea. Euri-jasa denean baino askozaz gehiago”, zehaztu zuen tonu pedagogikoz. Kopilotuaren eserlekua okupatzen zuen arimak, alta, ez zion arretarik apenas eskaini. Etxaurreak zelan itxuraldatzen

ziren behatzen zuen bere leihatilatik, gogo galduta, etsia eztarrian trabatuta legatz-hezur baten gisara.

Leihatilatik zabal agertzen zen hiria; gehiegizko. Nahasteko, jendeak haria gal dezan propio altxatu balute bezala.

“Herrira joateko, beste ezertarako ez dut autorik behar. Astiro noa, emaztearekin. Azkar joateko adinik ere ez dut, hainbeste badakit, horregatik presarik gabe joan ohi gara, zuek gazteak ez bezala, bidenabar esanda”. Ikasle traketsaren lanturua ahoskatzera zihoanean lehortu zitzaion mingaina delineatzaile erretiratuari. Hitzen faltan, begirada errukiorra zuzendu zion funtzionarioari. Gazteak, erantzun gisa, irratia piztu zuen: eguraldiaren aurreikuspena, iragarkiak, esatarien ahots inpostatua eta pop abestiak. Modernitate asperraren emisioek bete zuten bien arteko lubakia.

Berriki irekitako metro geltoki baten parean geratu zen autoa. Orduan bai, funtzionarioak begietara so egin zion errepideetatik behin betiko kanporatuko zuen gizonari. Eskua jarri zion sorbaldan, abegikor suertatu nahirik. Arrotz baten eskua zen, ordea: hotza, aseptikoa, geza. Are, bere hazpegiak berandu baino lehen galduko ziren inoren gogoan. Amerikana hartu, ibilgailutik irten eta eskaileretan behera abiatu zen gizona, behinola delineatzaile eta gidari izandakoa, lurak irents zezan.

Hala, oinak arrastaka ailegatu zen delineatzaile erretiratuaren itzala metroko informazio bulegora. Kristala hatz-koskorrekin kolpatu zuen uniformedun emakume baten arreta bereganatzeko. Jarraian, galdera bera hiru aldiz jaurti zion kristalari. Bestaldetik, besoekin keinu egin eta zerbait ahoskatu zuen langileak bueltan; behin, birritan eta hirutan, delineatzaile erretiratuak hitz solte batzuk besterik ez aditzeko moduan, ura esku-ahurretan irristatzean bezala.

Beroak ufadaka kolpatzen zuen. Trenen zarata eta bozgorailuko mezu elebidunak airean nahasten ziren. Bidaiari presatuek ez zuten behakoa debideratzen, iparra galtzeko beldur akaso. Paperontziak gainezka egiteko zorian zeuden. Elkarri begira geratu ziren bezero eta langile. Kristala lodiegia zen elkar ulertzeko.

Emakumea gogo txarrez altxatu eta garitatik irten zen. Delineatzaile erretiratuak, urtetan kirolik egin gabea eta hala ere kolesterola kontrolpean, burua makurtu zuen otzan, arrazoiak ondo ez ulertuagatik ere, autoritatearen aurrean

errieta jasotzearen den morroiaren gisara. Langileak eskuorri bat paratu zuen gizonaren eskuan. Jarraian, tatuaje deskribaezin bat gordetzen zuen besoarekin hirugarren nasa seinlatu zion.

Delineatzaile erretiratuak turistentzako eskuorria zabaldu izan balu, iraungitzen hasitako mapa bat ikusiko zukeen, geltokiak zabaldu eta itxi, zabaldu eta itxi baitabilta beti, konexioak galduz eta berriak ezarriz.

Mapa poltsikoan gordetik, delineatzaile erretiratuak, emaztea neskame eta estutasun barik bizitzeko aurrezkien jabe, izerdi patsetan zebilen lur azpiko pasabideetan zehar. Belarrien inguruko ileak blai, alkandora azalera itsatsirik, hotz zen hala ere. Akaso sukarrak jota zegoen; horrek azaldu zezakeen istripua. Hobe esanda, istripu izatera ere heldu ez zen ezustekoa.

Hirugarren nasan zain, bidaiaria-agentzia baten iragarkiaren aurrean ostera ere, begiak bildu zituen delineatzaile erretiratuak. Oporretan ezagututako elizak, hondartzak, museoak eta jatetxeak nahastu ziren haren gogoan, gainjarri. Non, noiz, norekin andana zuen buruan, nor bere kasa, dantza askean. Bizipenak ezarian desitxuratzen zihoazkion, ordurako gainezka egin balute bezala Erroman jandako pizza goxo haiexek, udako arratsalde hondarretan jokaturako futbol partidatxoek, haur jaioberrien irribarre aratzek nahiz belaunetako azala zartatu orduko negar eta orroek. Orogen gainetik argi zuen, hala ere, kostara egindako eztei-bidaian berak gidatu zuela autoa, joan-etorri. Seat 133 orria, behar baino gehiagotan matxuratu eta emaztea autotik jaitzarazi gabe bide-bazterretan konpondutakoa. Bere eskuekin, inoren laguntzarik gabe.

Hura gogoratzean, harrotasun ziztada bat nabaritu zuen bularrean; laburra, ordea, nahi baino lehenago hutsalduko zena.

Etxera bidean, tren batera eta bestera igotzean, dutxatu gabeko buzodun beharginen izerdi-sunda eramanezinaren gainetik, ameskeriatan jarraitzen zuen delineatzaile erretiratuaren gogoak: hondartza ertzeko hotel bat, izara garbiak, leioa parez pare irekita, gortinak haizearen menpe. Iraganaren txatal hura, gorputz gazte bi erdizka biluzik estreinakoz, usain zezakeen kasik. Emaztea komunean freskatzen sentitu, ur zirristaren hotsa aditu. Indarrez eutsi nahi izan zion gomutari delineatzaile erretiratuak.

Begiak bilduta irten zen metro geltokitik, etorkizuna irakurtzen zuen emakume afrikarrean erreparatu gabe, eta begiak bilduta heldu zen etxepera.

Eten ziren irudiak delineatzaile erretiratuaren buruan orduan; alabaina, begiak zabaldu zituenean Super 8 bideoen gisara agertu zen bere ingurua, sepia kolore ahitu batek errealitatea tindatu balu bezala. Urduri, egunkaria eta ogia erosteari muzin egin eta keinu dorpeekin, belauak tolestea mingarria balitzaio legez baina presaka aldi berean, atarian aurrera egin zuen delineatzaile erretiratuak, behingoagatik postontziko zirrikitan begiratzea ahaztuta.

Igogailuan sartu bezain laster, ispiluak begirada lainotua itzuli zion delineatzaile erretiratuari. Etxean emaztea izango zuen zain; ziurrenik, baita bilobek telefonora bidalitako bideoen bat ere. Gosaritan agertuko ziren, ahoa zabalik jaten, txokolate arrastoak aurpegian, eskolara joan aurretik *zorionak aitona* oihuka kamerari. Full HD-n, hori bai, argi, garbi eta garden.

Delineatzaile erretiratu, seme kutunena arkitekto, bestea banketxe bateko bulegari, ate aurrean zen azkenik. Orroka zuen sabela; eskuetan zimurrak, zainak urdin, dardara lausoa. Arnasa sakon hartu eta giltzak hirugarrenean asmatu zuen sarrailan. Urrats soil bat eta etxean zen berriz.

"Gorbatarik ez al duzu eraman azkenean?", sartu bezain pronto agurtu zuen emazteak, amantala soinean, musua emateko prest gizonaren 70. urteurrenean, lapikoa bor-bor sukaldean.

Zerbait ahoskatzera zihoanean mututu zen delineatzaile erretiratu, hitzak galtzen dabilen hiztegiaren antzera. Gizonak eskua eztarri aldera eraman zuen, alkandoraren lepoa leun haztatuz. Mingaina lehor, adurra zuri ezpain-ertzetan, egunean zehar metaturiko izerdi guztia zalantza larri bilakatu zitzaion orduan.